

-Azpeitia
Denontzat

Azpeitia
Denontzat

Azpeitiko etxebizitza plana

Nagore Alkorta, Azpeitiko alkatea

Azpeitiar guztien bizi kalitatea hobetzea. Horixe da gure egitekoa egunerokoan. Horretarako ezinbestekoa da arlo desberdinetako beharrak aztertu eta politika eraginkorrak abian jartzea.

Etorkizuneko erronkei gaurtik erantzuteko helburuarekin osatu berri dugu *Azpeitia 2030*, etorkizuna denon artean plan estrategikoa. Denontzako Azpeitia denon artean eraikitzen jarraitzeko ariketa izan da. Plan estrategiko horren baitan, etxebizitza beharrari erantzuteko lankeza propioa egiteko beharra plazaratu zen, eta horri erantzunez osatu du Azpeitiko Udalak etxebizitza plana.

“Azpeitia denontzako izatea nahi dugu; denok bertan bizitzeko aukera berdinak izatea”

Azpeitia denontzako izatea nahi dugu; denok bertan bizitzeko aukera berdinak izatea nahi dugu. Etxebizitza bat eskuratzeak, izan alokairuan edo jabetzan, eragin zuzena du herritarren zein familien egoera ekonomikoan. Horregatik, ezinbestekoa iruditzen zaigu molde eta tipologia ezberdinetako etxebizitzaren eskaintza publiko jarraitua egitea.

Etxebizitza politikaren abiapuntua, duela hainbat urte jarri zuen udalak. Etxe hutsetatik abiatutako politikak bultzatu ditu orain artean. Azken bi urteotan babes publikoko etxebizitza eskaintza zabala ere egin du. Duela gutxi, Eusko Jaurlaritzarekin batera alokairu publikoko 48 etxebizitza eraikitzen hasi da Esklabetako eraikinean, gazteen emantzipazioa eta herritar zaugarrienen etxebizitza beharrari erantzuteko. Pixkanaka eman ditugu pausoak.

Plan berri honekin, orain artean egindako ibilbidean pauso kualitatibo bat ematea dugu helburu. Orain artekoa abiapuntu izanda, etxebizitza politikan sakontzeko neurri berritzaileak abian jartzea dugu helburu.

Abiapuntua

1948ko abenduaren 10eko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean (25.1 artikulua), 1966ko abenduaren 16ko Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Nazioarteko Itunean (11.1 artikulua) eta Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak 2000ko abenduaren 7an onartutako Europar Batasunaren Oinarri-zko Eskubideen Gutunean (34.3 artikulua) etxebizitzaren garrantzia soziala azpimarratzen da, eta pertsonen eta beren familien bizi-baldintzak hobetzearekin eta gizarte-bazterketa saihestu eta gainditzeko aukerekin lotzen da.

Nazioarteko xedapen horiei lotuta, 1978ko Konstituzioak esplizituki aitortzen du, 47. artikuluan, herritar guztiek daukatela eskubidea etxebizitza duin eta egokia izateko, eta botere publiko guztiei exijitu eta agintzen die beharrezko

“Administrazio publikoek herritarrei etxebizitza duin eta egokiak erabiltzeko eskubidea bermatzeko mandatua dute”

baldintzak sustatu eta arau egokiak ezar ditzatela eskubide hori benetan bermatu dadin.

Etxera etorrita, Euskal Autonomia Estatuaren 10.31. artikuluan adierazitakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskuduntza eskusiboa dauka hirigintza eta etxebizitza arloetan. Eskuduntza hori betez, Eusko Legebiltzarrak Etxebizitzaren legea, ekainaren 18ko 3/2015 Legea onartu zuen. Lege horren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean etxebizitza duin eta egokia edukitzeko eskubidea erregulatzea.



“Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunean (34.3 artikulua) etxebizitzaren garrantzia soziala azpimarratzen da, eta pertsonen eta beren familien bizi-baldintzak hobetzearekin eta gizarte-bazterketa saihestu eta gainditzeko aukerekin lotzen da”

Hauxe da lege horren paragrafoetako bat:

“Etxebizitza izateko eskubidea nahitaezkoa da gizakiarentzat, funtsezko beste eskubide batzuk baldintzatzen baititu; adibidez, enplegua izatekoa, botoa ematekoa, prestazio eta zerbitzu publikoak jasotzekoa, seme-alabak eskolaratzekoa, kulturaz eta ingurumen egokiaz gozatzekoa, bizipenak senideekin eta lagunekin partekatzekoa, eta beste hainbat ere, itzal handieneko doktrinak eta justizia-auzitegiek behin eta berriz nabarmendu dutenez. Etxebizitza izateko eskubideak eta eskubide hori benetan gauzatzeak bizitza duin bat eramatea errazten eta ahalbidetzen diote gizakiari.”

Lege horren 10.2. artikulua araberak: “Udalei dagozkien beren titulartasuneko zuzkidura- bizitokien antolamendu, sustapen, kudeaketa, esleipen eta kontroleko eskumenak, baita udal-araubide tasatuko etxebizitza, lokal eta eranskinak ere, eraikuntza berriak izan edo birgaitzeko eta hiri-berroneratzeko berariazko planen ondoriozkoak izan”.

Bestalde, 10.3. artikulua araberak: “Udalei dagozkien ikuskatzeko, behin-behineko neurriak hartzeko eta eraikinak egoki erabiliko direla bermatzeko esku-hartze publikoko ahalmen eta ahalak, baita etxebizitzaren merkatuan eragitekoak ere, eta orobat beraiei dagokien etxebizitza-gaietan zehatzeko ahalak erabiltzea”.

Azpeitiko Udalaren funtsezko ardatza bihurtu da etxebizitza babestua sustatzeko politikak garatzea.



Etxebizitzaren Euskal Legeak ekarritako berrikuntza nagusia da etxebizitzarako eskubide subjektiboa aitortzea: “Etxebizitza bat legez modu egonkorrean okupatzeko eskubidea etxebizitza duin eta egokirik ez dutenei –aipatutako zentzuan–, etxebizitza lortzeko diru-baliabiderik ez badute”.

Etxebizitza da herritarren kezka nagusietako bat, baita Azpeitia bezalako herri batean ere, non prezio altuen ondorioz herritar askok ezin duten etxebizitza duin bat prezio egokian erosi. Administrazio publikoek etxebizitza duin eta egoki bat erabiltzeko eskubidea gauzatzeko mandatua dute.

Eta mandatu hori bere eginez, Azpeitiko Udalaren funtsezko ardatza bihurtu da etxebizitza babestua sustatzeko politikak garatzea. Etxebizitza planean zehaztutako politikak etxebizitza arrazoizko prezioan eskuratu ezin dutenei zuzenduta dago. Baina ez horiei bakarrik, baita etxebizitza baten jabe izan arren, etxebizitza beren beharretara egokitzeko arazo gaindiezinak dituztenei ere. Egoera horrek beren bizi-kalitatea zuzenean baldintzatzen baitu. Finean, herritarren beharretara egokitzen den etxebizitza-ibilbide bat gauzatu nahi da, azpeitiarren bizi-zikloa eta premia aldakorrak kontuan hartzen dituen.

Misioa, ikuspegia eta baloreak

Misioa

Azpeitiarren etxebizitza premia asetzea. Etxebizitzarako eskubide subjektiboa bermatuz eta zailtasun gehienak dituzten kolektiboen beharrei erantzunez. Arreta berezia jarriko da gazteen emantzipazioan eta adineko pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko neurrietan.

Ikuspegia

Udalek jarraitu beharreko etxebizitza politikek marko orokorraren izaera duten heinean, eta etxebizitzaren funtzio soziala bermatzeko helburuz, etxebizitzaren 3/2015 euskal legeak jasotako mandatuak betetzea izango da helburua. Kudeaketa eraginkor baterako oinarriak eta baliabideak jarriko dira.



Baloreak

- 1. Zerbitzu publikoa:**
Herritarrei etxebizitzaren inguruko zerbitzu ireki eta osoa eskaintzea du helburu.
- 2. Berritzailea:**
Etxebizitza polikaren arloan pauso berri eta berritzaileak ematea izango du helburu. Izaera eta molde berriko beharretara egokituko da.
- 3. Gardena:**
Gardentasunez eramango da aurrera plana. Herritarrei gaiaren inguruko ahalik eta komunikazio zuzena eta osatuena eskainiko zaie.
- 4. Jasangarria:**
Ingurumen eta hirigintza antolamendu jasangarri baten alde egingo du. Bide horretan, efizientzia energetikoaren gaian arreta berezia jarriko du.
- 5. Gizarte kohesioa ahalbidetuko duena:**
Herritarrek berdintasunez eta justiziaz tratatuko ditu eta maila sozioekonomikoan integratzea izango du helburu.
- 6. Euskararen egoera bermatuko duena:**
Azpeitia herri euskalduna da, eta etxebizitza planeko aktuzioen eragin linguistikoa aztertzeko ebaluazioak egiteko konpromisoa du udalak.
- 7. Elkarlana:**
Beste erakundeekin elkarlana sustatuko du, elkarlanean eta koordinatuta zerbitzu eta eskaintza hobeagoa eskaintzeko.
- 8. Parekidea:**
Herritarren aukera berdintasuna bermatuko du. Horretaz gain, genero indarkeria jasan duten emakumeen etxebizitza beharrei erantzuna emango dio.
- 9. Irekia:**
Plan irekia da. Herritarren behar eta ekarpenetara irekia, etorkizuneko erronka berrietara irekita izango dena.

Diagnostikoa, etxebizitza premia



Azpeitiarren etxebizitza premia zer nolakoa den jakiteko etxebizitzaren inguruko azterketa egin du Azpeitiko Udalak. Hainbat arlo jorratu badira ere, etxebizitza beharrak zehaztea izan da azterketaren helburu nagusia.

Batetik, datu estatistikokoak aztertu dira. Eta bestetik, azpeitiarren iritziak kontutan hartu asmoz 591 azpeitiarrei galdetegia egin zaie. Zehazki, emantzipatu gabe dauden 465 gazterekin eta alokairuan bizi diren 126 azpeitiarrekin hitz egin du Azpeitiko Udalak.

Azpeitiarren iritziak kontutan hartu asmoz 591 azpeitiarrei galdetegia egin zaie

Etxebizitza azterketa osoa aparteko hiru dokumentutan bildu da eta www.azpeitia.eus udal webgunean dago guztia eskuragarri. Baina, etxebizitza plana osatzeko oinarrizko dokumentua izan denez, planean bertan ere zertzelada nagusiak jaso dira.

Segidan, etxebizitza premiaren inguruko daturik esanguratsuenak bildu dira.


ETXEBIZITZA BABESTUAREN ESKARIA AZPEITIAN, 2021EKO EKAINAREN 1EAN

	Erroldatuta		
	Erosketa	Alokairua	Guztira
Azpeitia	305	263	568
	44,4%	38,3%	82,7%

Iturria: etxebizitza Saila. Etxebide.

Azpeitiko etxebizitzaren eskaera zein den jakiteko, Etxebiden izena emandako datuetara jo du udalak. Guztira, 2021eko ekainaren 1ean, 568 herritarrek zuten izena emanda, Azpeitian etxe bat erosi edo alokatzeko. Herritar horietatik %44,4ak etxebizitza erosteko asmoaz agertzen du eta %38,3ak etxebizitza alokatzekoa.

ESKARIEN BANAKETA ETXEBIDEN, DIRU-SARREREN MAILAREN ARABERA.




Etxebiden izena emanda dauden azpeitiarren zati batek bakarrik ditu merkatu librean etxebizitza aldatzeko baliabideak; bai erosketarako, eta baita alokairurako ere. Izan ere, eskaera horien % 56ak 21.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzte urtean, eta horrek asko zailtzen du etxebizitzaren merkatu librean sartzea.

AZPEITIKO GAZTE EMANTZIPATUGABEAK, 18 ETA 35 URTE BITARTEKOAK, 1.804 GAZTE DIRA ETA GUZTIRA 2.854


Adin tartea	Gazteak guztira	Emantzipatugabeak	Emantzipatutakoak
18-24 (biak barne)	1.116 biztanle	1.025	91
25-29 (biak barne)	758 biztanle	499	259
30-35 (biak barne)	980 biztanle	280	700

Azpeitian, 18 eta 35 urte arteko 2.854 gazte daude erroldatuta. 18 eta 24 urte artekoak dira, horietatik 1.116; 25 eta 29 urte bitartekoak 758 dira eta 30 eta 35 artekoak 980. Guzti horietatik, %36,8a dago emantzipatua; 1.050 zehazki.


18-24 URTE BITARTEKOAK



25-29 URTE BITARTEKOAK




30-35 URTE BITARTEKOAK



Emantzipatuak

Emantzipatugabeak

GUZTIRA



Iturria: etxebizitza Saila. Etxebide.

ALOKAIRUAN EDO PROPIETATEAN NAHI DUTE?


	Jarduera			Sexua			Adina		
	Guztira	Ikasleak	Langileak	Langabeak	Emakumeak	Gizonak	18-24 urte	25-29 urte	30-35 urte
Jabetzan	50,6%	29,0%	58,0%	25,9%	44,7%	56,9%	42,7%	52,5%	59,6%
Alokairuan	26,5%	54,4%	17,3%	52,1%	29,3%	23,7%	38,1%	19,9%	19,6%
Alokairua, erosteko aukerarekin	14,2%	13,5%	15,1%	7,9%	18,3%	9,8%	13,7%	15,3%	13,2%
Berdin dio	8,6%	3,1%	9,6%	14,1%	7,7%	9,6%	5,6%	12,3%	7,7%

Etxebizitza eskuratu nahi duten %50,6ak erostea nahi du; %26,5ak etxebizitza alokatzea nahiko luke eta %14,2ak alokatzea nahiko luke, erosteko aukerarekin. Besteei berdin diete erosi edo alokatu.

Etxebizitza erosteko nahia, batez ere, langileek agertzen dute. Ikasle eta langabeek alokairurako joera handiagoa dute Adinak gora egin ahala, etxebizitza erosteko nahiak ere gora egiten duela ikus daiteke.

ALOKAIRUKO LAGUNTZEN EZAGUTZA


Etxebizitza alokatzeko herritarrek eskuratu ditzaketen laguntzei buruz galdetuta, %69,7ak ezagutzen ditu Azpeitiko Udalak urtez urte egiten duen diru-laguntzen deialdia. Hala ere, beste erakunde publikoen bidez bideratu daitezkeen laguntzen inguruan ez-jakintasuna dagoela ikus daiteke.



	Jarduera			Sexua			Adina		
	Guztira	Ikasleak	Langileak	Langabeak	Emakumeak	Gizonak	18-24 urte	25-29 urte	30-35 urte
Gaztelagun	37,0%	42,8%	37,0%	29,6%	41,9%	31,9%	36,1%	43,0%	29,4%
PCV	14,1%	19,8%	14,2%	0,0%	13,1%	15,2%	13,1%	17,0%	11,1%
AES	13,4%	16,5%	13,4%	7,9%	12,7%	14,1%	13,3%	16,3%	9,1%
Azpeitiko Udala	69,7%	68,6%	70,8%	55,9%	73,9%	65,2%	72,0%	76,9%	55,5%



EMANTZIPATU GABEKO GAZTEEK AZPEITIAN BIZI NAHI DUTE



Oinarria: Azpeitian etxebizitza soziala eskatzen den 126 etxeetan bizi diren 390 pertsona

ETXEBIZITZA PREMIA

- Galdetegian parte hartu duten gaztetatik 338k etxebizitza eskuratzeko premia handia edo oso handia dutela adierazi dute. Etxebizitza-premiak dituzten 562 gazteen % 60,1a dira.
- Berriki azaldu diren etxebizitza-premiak dira: Lehen etxebizitza eskuratzeko premia duten gazte gehienek %81ek)bi urte edo gutxiago daramate egoera horretan.
- Emantzipatu eta euren kontura bizitzeko premia da etxebizitza behar izateko arrazoi nagusia. Azpeitiko gazteen ezinbesteko premia da, eta beste edozein arrazoiren gainetik dago.
- Emantzipatzeko aukeren artean jabetza lehenesten dute% 50,6k % 8,6k ez dute alokairuaren eta erosketaren artean hauturik egiten, eta % 14,2k etxebizitza erosteko prest leudeke alokairu-ordainketak jabetzara bideratuz; laurdenak, berriz, alokairua lehenesten du.
- Etxebizitza-premia duten gazteen % 82k diru-sarreraren bat du etxebizitza ordainketei aurre egiteko.



Estrategia

Azpeitia 2030 plan estrategikoren helburu nagusia eragileon artean herrigintzan eraman beharreko norabidea adostea izan zen. Azpeitiak datozen urteetarako dituen lan-ildo eta erronka nagusiak jaso ziren bertan. Eta azpeitiarren egunerokoan duen garrantziagatik, beste hainbat lan ildorekin batera, etxebizitzaren problematikari erantzutea ildo propio bezala markatzea erabaki zen. Orain, etxebizitza plan honen bitartez, plan estrategikoan jasotakoan garatu nahi da.

Helburu nagusia azpeitiarren etxebizitza beharrei erantzutea izanik, lehenik eta behin, ezinbestekoa da behar horiek identifikatzea. Horretarako, aldian behin egingo diren azterketek garrantzia berezia izango dute Azpeitiko Udalaren etxebizitza politika definitzerako orduan. Beraz, sinpleki, beharrak identifikatu eta baliabide publikoak behar horiei erantzutera bideratzea izango da estrategia.

Eskuartean dugun etxebizitza plana osatzeko abiapuntua ere etxebizitza premia aztertzeko diagnostikoa izan da. Eta azpeitiarren etxebizitza beharrak jasotzen hasita, agerian gelditu dira hainbat sektorek dituzten zailtasunak; Azpeitira etorri berriak diren herritarrak eta gazteak dira behar nabarmenenak dituzten kolektibo nagusiak. Baina, agerikoak dira baita ere, emakumeek, familia monoparentalek, bananduek edota adinekoek dituzten behar espezifikoak ere.

Lau urtez behin eguneratzea aurreikusten den etxebizitza beharren azterketak jarriko dio norabidea etxebizitza politikari. Baina, behar orokorretatik harago, modu iraunkorrean azpeitiarren beharrak jasotzeko eta arreta pertsonalizatua eskaintzeko ahalegina egingo du Azpeitiko Udalak. Izan ere, azpeitiar guztiek etxebizitza eskuragarri izan dezaten lortzeko bakoitzaren behar espezifikoerantz behar zaie.

Udaleko departamentu eta erakunde ezberdinen arteko elkarlanaren baitan, etxebizitza bulego propioa jarriko da abian. Batetik, azpeitiarrei arreta eskaini eta etxebizitzaren inguruko informazio osatua eskaintzeko tresna izango da. Bestetik, etxebizitza beharrei erantzun ahal izateko etxebizitza parke publikoa osatzeko urratsak emango dira.

Etxebizitza eskaintza osatzerako orduan ikuspegi integral batetik egin nahi da bidea. Eta horregatik, jasangarritasuna, ingurumena, hizkuntza edota genero ikuspegia ere kontutan hartuko dira.

Lehentasunez etxebizitza hutsetatik abiatuko gara. Eta lehenik, erabilerarik ez duten bizitokiak mobilizatu eta alokairura bideratzeko lan egingo dugu. Bigarrenik, babes publikoko etxebizitzak eraiki eta etxebizitza parke publikoa eraikitzen jarraituko du Azpeitiko udalak. Eta hirugarrenik, erabilera duten etxebizitzak birgaitze eta egokitze lanak sustatuko ditu. Beti ere, azpeitiarren etxebizitza eskubidea bermatu eta herritarren bizi kalitatea hobetzeko helburuari lotuta.





Erronkak

Erronkak,
lan-ildoak
eta ekintzak

1.-

Etxebizitzaren arloan arreta pertsonalizatua, informazio osoa eta aholkularitza zerbitzu integrala eskaintzea

1.1 Etxebizitzaren arloko aholkularitza zerbitzua

- 1.1.1 Etxebizitza beharra duten azpeitiarrei arreta pertsonalizatua
- 1.1.2 Etxegabetze arriskuan dauden pertsonen arreta eta laguntzarako jardura protokoloa
- 1.1.3 Alokatzeko poltsa programa/ BIZIGUNE eta antzekoen gaineko aholkularitza (etxebizitza hutsen jabeai edo maizter izan daitezkeenei)
- 1.1.4 Babes publikoko etxebizitzaren eskaintzaren berri ematea
- 1.1.5 Birgaitzearen arloko laguntza tekniko (tramiteak eta laguntzak koordinatzea, EITE-en jarraipena, bizilagun-elkarteen bitartekaritza ...)
- 1.1.6 Udaleko nahiz beste erakunde publikoetako sustapen publikoen inguruko informazioa eguneratua eskaintzea (betebeharreko baldintzak, laguntzak ...)

1.2 Sentsibilizazio eta kontzientziazio estrategia

- 1.2.1 Etxebizitzaren funtzio sozialaz jabetzeko etengabeko lanketa

1.3 Etxebizitzaren arloko informazioa etengabe eguneratzea eta jarraipena egitea

- 1.3.1 Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlana
- 1.3.2 Lankidetza Etxebizitzaren Euskal Behatokiarekin



2.-

Hutsik dauden etxebizitzak mobilizatu eta alokairura bideratzea

2.1 Arrazoizko prezioko alokairua sustatzea hutsik dauden etxebizitzak merkaturatuz

- 2.1.1 Azpeitiko Udalak gazteei zuzendutako alokairurako laguntzak kudeatzea
- 2.1.2 Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean jardutea, Bizigune eta ASAP programetarako etxebizitzaren kudeaketa hobetzeko
- 2.1.3 Etxe hutsen gaineko IBI errekgua mantendu eta Eusko Jaurlaritzak lege bitartez etxe hutsei ezarri dien kanona aplikatzen hastea
- 2.1.4 Apartamentu turistikoen erregulazioa etxebizitzaren funtzio sozialaren mantentzea oinarri izanik

2.2 Alokatzeko lan-poltsa sustatzea

- 2.2.1 Alokatzeko lan-poltsaren bitartez errentan jartzeko etxebizitza hutsak erakartzeko lana indartzea (etxejabeekin harremanak)
- 2.2.2 Azpeitiko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak arlo honetan onartutako laguntzen jarraipena

2.3 Alokairuko parkearen kudeaketan alderdi soziala indartzea

- 2.3.1 Elkarlanean jardutea Udaleko beste atal batzuekin (Gizarte Zerbitzuak, Hezkuntza...)
- 2.3.2 Koordinatuta jardutea Gipuzkoako Foru Aldundiko gizartearen arloko departamentuekin (desgaitasuna duten pertsonak, adineko pertsonak, haurrak eta familia etab)



3.-

Babes publikoko etxebizitza berriak sustatzea

3.1 Behar guztiei erantzun ahal izateko tipologia ezberdinetako etxebizitzez osatutako etxebizitza parke publikoa eraikitzea.

3.1.1 Larrialdi sozialetarako etxebizitza publikoen poltsa osatu eta indartzea

3.1.2 Alokairu soziala sustatzeko zuzkidura etxebizitzak eraikitzea

3.1.3 Zaharkituta, erabilerarik gabe eta egoera txarrean dauden etxebizitzak merkaturatzea

3.1.4 Babes ofizialeko etxebizitza eskaintza iraunkorra egitea

3.2.4 Etxebizitza tasatuak eraikitzea

3.2.5 Etxebizitza tutelatuak eraikitzea

3.2.6 Sortzen diren beste beharrei erantzungo dien tipologiak azterketa (etxebizitza komunitarioak, etxebizitza kooperatiboak etab.)



4.-

Etxebizitza parkearen eta eraikinen birgaitzea sustatu, bizigarritasuna, irisgarritasuna eta energia efizientzia hobetuz

4.1 Eraikinen eta etxebizitzaren irisgarritasuna hobetzea sustatzea, jarduketak auzo eta kolektiborik zaurgarrienetan fokalizatuta (bakarrik bizi diren adinekoak, batez ere emakumeak)

4.1.1 Lehenetasuna duten jarduera eta lehenetasunezko arreta behar duten herritarrak identifikatzea

4.1.2 Igogailuak jartzeko laguntzak

4.1.3 Birgaitzeko diru-laguntzak, lehenetasun gisa, irisgarritasuna hobetzeko esku-hartzeetara bideratzea

4.2 Etxebizitza -parkearen energia-efizientzia hobetzeko ekintzak sustatzea

4.2.1 Fatxadak berritzeko Azpeitiko Udalaren laguntzak mantendu edota berritzea

4.2.2 Azpeitiko udala nahiz beste erakundeetatik arlo honetara bideratutako laguntzen berri eman eta jarraipena egitea

4.3 Etxebizitza trukea erraztea

4.3.1 Adineko pertsonen jabetzako etxebizitza lagatzeko eta alokairuko parke babestuan sartzeko programa

4.3.2 Gizarte Zerbitzuen eta etxebizitzaren kudeatzaile publikoen arteko koordinazioa

